



GOBERNU BATZARRA

2023.01.31

Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Patxi Amantegi Zubiria
Xarles Iturbe Pasaban
Xabier Balerdi Tolosa

Bertaratu ez diren zinegotziak:
Begoña Tolosa Mendia
Jose M. Villanueva Telleria

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzaitzalo teknikaria:
Eneritz Iraola

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko urtarrilaren hogeita hamaikan, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

1. Akta hau onartzea: 2023ko urtarrilaren 17koa
2. Onartzea **NERCO INFRAESTRUCTURAS, S.L.** enpresari zehapenak aplikatzeko izapidetzea hastea, Tolosako Usabalgo 3. faseari dagokion kirol instalakuntzen eta hiritartze osagarriari dagozkion obra-kontratuaren lizitazioa arautzen duten administrazio baldintza partikularren pleguan aurreikusitakoaren arabera.
3. Dekretu hauen berri ematea:
 - 2023/65 dekretua: 2022/55 faktura zerrenda.
 - 2023/114 dekretua: 2022/56 faktura zerrenda.
 - 2023/115 dekretua: 2022/57 eta 2022/58 faktura zerrendak.
 - 2023/150 dekretua: 2022/90 faktura zerrenda.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2023KO URTARRILAREN 17KOA

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.



2. ONARTZEA NERCO INFRAESTRUCTURAS, S.L. ENPRESARI ZEHAPENAK APLIKATZEKO IZAPIDETZEA HASTEAN, TOLOSAKO USABALGO 3. FASEARI DAGOKION KIROL INSTALAKUNTZEN ETA HIRITARTZE OSAGARRIARI DAGOZKION OBRA-KONTRATUAREN LIZITAZIOA ARAUTZEN DUTEN ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUAN AURREIKUSITAKOAREN ARABERA.

I.- IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Kontratuaren xedea	Tolosako Usabalgo 3. Fasea, kirol-instalazioei eta urbanizazio osagarriari dagozkien obrak.
Unitate sustatzailea	Hirigintza
Espedientea	2022OASI0006

II.- AURREKARIAK

Lehenen.- Udal-arkitektoak 2022ko otsailaren 25ean emandako AB22_011 txostenean, erreferentziako espedientea abian jartzeko nahitaezko txostenak zeuden jasota. Kontratazio-prozedura onartu eta lizitazioa abian jarri ondoren, NERCO INFRAESTRUCTURAS SL (B53926606) izan zen eskaintza aurkeztu zuen enpresa bakarra. Lizitazio-aurrekontua gainditzen zuen, eta, beraz, Tokiko Gobernu Batzarrak lizitazioa (2022OASI0003) hutsik uztea erabaki zuen 2022ko maiatzaren 24an.

Bigarrenen.- Aurkeztutako enpresa bakarrak alegatu zuen 2022OASI0003 espedientearen lizitaziorako oinarritzko aurrekontuak ez zuela obren kostua estaltzen, merkatuko prezioen igoeraren eragina zela eta. Hala, Marta Álvarez, Jon Muniategiandikoetxea, Javier Ubillos, Tomás Valenciano eta Iñigo García (VAUMM ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP) arkitektoek 2022ko ekainean aurkeztu zuten Tolosako Usabalen, 3. faseari lotutako kirol-instalazioak eta urbanizazio-obra osagarria egikaritzeko proiektua (REV02); hau da, aurreko proiektuaren aldaketa bat, aurrekontua hasierakoak baino ehuneko 12 handiagoa zuena.

Hirugarrenen.- Tolosako Usabalgo 3. faseari dagozkion kirol-instalazioak eta urbanizazio-obra osagarriak gauzatzeko proiektuaren (2021OPRO0013) aldaketa 2022ko ekainaren 21ean onartu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak. Proiektuari nahitaezko zuinketa-akta erantsi zitzaion, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 236. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laugarrenen.- Aurreko guztia kontuan hartuta, obrak berriz ere lizitatu ziren, **premiak** eta xede berarekin, eta zegokion prozedura izapidetu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko irailaren 7ko erabakiaren bidez, NERCO INFRAESTRUCTURAS SL enpresari



(B53926606) esleitu zitzaion Tolosako Usabalen 3. faseko kirol-instalazioak eta urbanizazio osagarria egiteko obren kontratua.

Bosgarrena.- Kontratuaren ezaugarri nagusiak honako hauek izan ziren:

- Prezioa: printzipala 833.409,50 euro eta BEZa 175.016,00 euro; guztira: 1.008.425,50 euro.
- Bermea: 2 urte.
- Gauzatzeko epea: 6 hilabete, zuinketaren egiaztapen-akta formalizatzen denetik aurrera.

Seigarrena.- Hori guztia kontuan hartuta, 2022ko irailaren 23an, Tolosako Udalak eta NERCO INFRAESTRUCTURAS SL merkataritza-sozietateak (B53926606) kontratua formalizatu zuten.

Zazpigarrena.- 2022ko azaroaren 23an, zuinketa egiaztatzeak formalizatu zen.

Zortzigarrena.- Udal-arkitektoak 2023ko urtarrilaren 23an egindako IG23_008 txostenean adierazi zuen obrak, txostenean adierazitako datan, hasi gabe zeudela.

III.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 237. artikulua, zuinketa egiaztatzeari dagokionez, honako hau dio:

«237. artikulua.- Zuinketa egiaztatzea.

Obra-kontratua zuinketa egiaztatzeak aktarekin hasiko da egikaritzen. Horretarako, obren ardura daukan administrazioko zerbitzuak, kontratista aurrean dela, lizitazioaren aurretik egindako zuinketa egiaztatuko du kontratuan jasotako epearen barruan –justifikatutako salbuespen-kasuetan izan ezik, epea, kontratua formalizatzen den egunetik kontatuta, ezingo da hilabetetik gorakoa izan–; emaitzak akta batean jasoko dira, eta, interesatuta dauden bi alderdiek izenpetu ondoren, kontratua egin zuen organoari bidali beharko zaio aktaren ale bat.»

Era berean, 238. eta 239. artikuluek honako hau ezartzen dute kontratistaren erantzukizunari eta ezinbesteko kasuari dagokienez:

«238. artikulua. Obrak egitea eta kontratistaren erantzukizuna.

- 1. Obrak, egin, administrazio-klausula partikularren agirian jasotako estipulazioei eta kontratuaren oinarri den proiektuari estu-estu lotuta egingo dira, eta obren zuzendaritza fakultatiboak interpretazio teknikoa eginez kontratistari emandako jarraibideen arabera.*
- 2. Jarraibideok, berbaz emandakoak badira, idatziz berretsi behar dira ahalik lasterrena, alderdi bientzat lotesleak izan daitezten.*
- 3. Obrek iraun bitartean, eta berme-epea bete arte, kontratista da eraikuntzan*



agertzen diren akats guztien erantzule.

239. artikulua. Ezinbesteko kasua.

1. Ezinbesteko kasuetan, kontratistak, zuhurtzirik gabe jardun ez badu, eskubidea edukiko du berari kontratua egikaritzean sortutako kalte-galeren ordainak jasotzeko.

2. Hauek hartuko dira ezinbesteko kasuak:

a) Atmosferako elektrizitateak sortutako suteak.

b) Hondamendiak eragiten dituzten naturako fenomenoak: itsasikarak, lurrikarak, sumendi-erupzioak, lur-mugimenduak, itsasoko ekaitzak, uholdeak eta antzeko beste batzuk.

c) Gerra-denboran indarkeriaz egindako triskantzak, lapurreta zalapartatsuak eta ordena publikoaren urratze larriak.»

Era berean, hemen aipatu behar da SPKLren 193. artikulua exekuzioaren atzerapenari buruz dioena:

«193. artikulua. Egikaritzean berandutzea.

1. Kontratistak kontratua egikaritzeko finkatutako azken epearen barruan bete behar du kontratua; elkarren jarraian jarritako epe partzialak ere bete egin behar ditu.

2. Kontratista berandutze-egoeran sartzeko, ez da beharrezkoa izango Administrazioak alde aurretik ohartarazpena egitea.

3. Baldin eta kontratista azken epea betetzeko orduan berandutu bada berari egotz dakizkiokeen kausak direla eta, Administrazioak, kasuaren inguruabarrei erreparatuta, aukeran izango du, edo kontratua suntsiaraztea, edo zigorrak ezartzea, proportzio honetan: kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euro, eguneko, BEZik gabe.

Kontratazio-organoak erabaki dezake aurreko paragrafoan zehaztutako zigorrez bestelakoak ezartzea administrazio-klausula partikularren agirian, baldin eta, kontratuaren ezaugarri bereziak aintzat hartuta, beharrezko irizten bazaio kontratua behar bezala egikaritzeko, eta halaxe justifikatzen bada espedientean.

4. Berandutzeagatik zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean BEZik gabe, kontratazio-organoak ahalmena izango du, edo kontratua suntsiarazteko, edo, zigor berriak ezarrita, kontratistak kontratua egikaritzen jarraitzea erabakitzeke.

5. Administrazioak aurreko apartatuetan adierazten diren ahalmen berberak edukiko ditu kontratistak epe partzialak betetzen ez dituenean, baldin eta administrazio-klausula partikularren agirian halaxe jasota badago, edo, epe partzial hauek betetzen berandututa, guztirako epea ere ezingo dela bete uste izateko nahiko arrazoi ikusten bada.»

Atzerapenari dagokionez, 195. artikulua honako hau ezartzen du:

«195. artikulua. Berandutzeagatik kontratuak suntsiaraztea, eta kontratuak egikaritzeko epea luzatzea.



1. 193. artikuluan aipatutako kasuan, Administrazioak kontratua suntsiaraztea erabakitzen badu, kontratazio-organoak edo autonomia-erkidegoetan horretarako eskumena duenak hartu behar du erabaki hori, eta nahitaezko izapide bakarra kontratistari entzutea izango da; baina, kontratista aurka azaltzen bada, Estatu Kontseiluaren edo autonomia-erkidego bakoitzean baliokidea den aholku-organoaren irizpena ere behar da.

2. Baldin eta atzerapena kontratistari egoztekoak ez zaizkion arrazoiengatik sortu bada baina hura prest azaltzen bada bere konpromisoak betetzeko kontratua egikaritzeko hasieran jarritako epea luzatuz gero, kontratazio-organoak epe bat emango dio, galdutako denboraren bestekoa izango dena gutxienez ere, kontratistak berak epe laburragoa eskatu ezik. Kontratuaren arduradunak txosten bat egingo du, zeinean zehaztuko baitu ea izandako atzerapena kontratistari egoztekoak zaizkion arrazoiengatik gertatu den».

Kasu horretan, kontratuaren hasiera atzeratzea kontratistari egotz dakioken arrazoia da, eta atzerapen horrek ezinezko egingo luke kontratua gauzatzeko epea betetzea.

Azkenik, SPKLren 245. artikulua, obra-kontratuak suntsiarazteko kausei dagokienez, honako hau ezartzen du:

«245. artikulua. Suntsiarazteko kausak.

Lege honetan aipatutako kausa orokorrean gain, hauek dira obra-kontratuak suntsiarazteko kausak:

- a) Zuinetaren egiaztapena arrazoi justifikaturik gabe berandutzea.
- b) Obren hasiera lau hilabete baino gehiago etetea.
- c) Administrazioak zortzi hilabete baino gehiagor obrak etetea.
- d) Atzera egitea.»

Bestalde, kontratuaren lizitazioa arautzen duen administrazio-klausula partikularren pleguaren I. eranskinak honako hau ezartzen du:

«8.- Egikaritze-epea eta -lekua. (9., 10. eta 53. klausulak)

Lanak egiteko aurreikusitako epea 6 hilabetekoa da, zuinetaren egiaztapen akta sinatzen den momentutik kontatzen hasita.

Exekuzio-lekua Tolosako Usabal eremua da, lizitazio honen zati banaezina den memoria teknikoan ezarritakoaren arabera.»

«10.- Adjudikazio-prozedura eta -irizpideak. (18. eta 20. klausulak)

Presako tramitazioa: SPKLren 119. artikuluan xedatutakoaren arabera, espediente hau premia atzeraezin bati erantzuteko kontratua denez eta interes publikoko



arrazoiengatik esleipena azkartu behar denez, kontratazio-organoak presakotzat jo du. Hori dela eta, espedienteak lehentasuna du izapidetzeko. Hori dela eta, eta SPKLren 156. artikuluko 3) idatz-zatiko b) letran xedatutakoarekin bat etorriz, enpresa lizitatzailen proposamenak bitarteko elektronikoen bidez baino ez dira aurkeztuko, HAMABOST (15) EGUN NATURALEKO epean, kontratuaren lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.»

«29.- Zehapenak. (12., 39., 43., 45., 47. eta 53. klausulak)

a) Atzerapenagatik: SPKLaren 193. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratistak, berari egoz dakizkiokeen arrazoiak tarteko, atzeratu egingo balitz iraupen osoaren betetzearekin, kontratuaren prezioaren —BEZik gabe— 1.000 euroko 0,60 euroko eguneroko zehapena jarriko litzaioke».

2.- Zehapen-prozedura

Indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuen Legeak aurreikusten du administrazio kontratatzaileak, kontratistak kontratuaren baldintzak betetzen ez baditu, kontratua suntsiarazi, edo zigorrak ezar ditzakeela. Horretarako, zigorrak, oro har, inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean ezarri ahal izango dira: kontratuaren xede den prestazioa gaizki betetzea, edo konpromisoak edo kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzea.

Hala, SPKLren 192. artikulua lehenengo apartatua aurreikusten duenez, baldintza-pleguetan edo deskribapen-agirian zigorrak aurreikusi ahal izango dira kontratuaren xede den prestazioa behar bezala betetzen ez den kasuetarako, edo SPKLren 76. artikulua 2. apartatuaren eta SPKLren 202. artikulua 1. apartatuaren arabera kontratua egikartzeko ezarritako konpromisoak edo baldintza bereziak betetzen ez diren kasurako. Ildo horretan, SPKLren 192.1 artikulua adierazten denez, zigor horiek ez-betetzearen larritasunarekiko proportzionalak izan beharko dute, eta zigor bakoitzaren zenbatekoak ezingo dira izan kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino handiagoak, BEZik gabe, eta guztira ezingo dira izan kontratuaren prezioaren ehuneko 50 baino handiagoak.

Aurreikuspen horri dagokionez, SPKLren 192. artikulua bigarren apartatua aurreikusten duenez, baldin eta kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehaztutako prestazioak partzialki bete ez baditu, administrazio kontratatzaileak aukera izango du, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontratua suntsiarazteko, edo administrazio-klausula partikularren pleguan edo deskribapen-agirian kasu horietarako zigorrek ezartzeko.



Araubide horretatik abiatuta, esan daiteke kontratazio publikoaren esparruko zigorrak **hertsatzeko isunak direla, ez direla zehapenak**, eta kontratu-izaera dutela (Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiaren maiatzaren 26ko 290/2006 epaia – ECLI:ES:TSJCL:2006:2790). Beraz, presio-bitartekoak dira, betebeharra erregulartasunez betetzen dela ziurtatzeko, KZeko 1.152 artikuluko zigor-klausula gisa. Aurreikuspen horren harira, Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2020ko urriaren 14ko epaiak (839/2020 zk., rec. 151/2017, ECLI:ES:TSJCV:2020:6630), kontratazio publikoaren esparruko zigorren izaera juridikoari dagokionez, honako hau adierazi zuen Zuzenbideko Oinarrietako Zazpigarrenean: *«En este momento vamos a analizar la naturaleza jurídica de las “penalidades” en el ámbito de la contratación, hemos señalado en el fundamento de derecho quinto que no se trata de “una sanción” ni es aplicable el procedimiento administrativo, todo ello sin perjuicio de la obligación de dar audiencia previa antes de acordar las penalidades...»*. Era berean, Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2005eko otsailaren 9ko epaiak (361/2005 zk., rec. 1045/2002, ECLI:ES:TSJCV:2005:741) Zuzenbideko Bigarren Oinarrian hau adierazi zuen: *«La jurisprudencia tiene declarado que cuando la Administración impone al contratista las expresadas penalidades no ejercita su potestad sancionadora, sino que su imposición se efectúa en el contexto de la contratación administrativa, haciendo aplicación de cláusulas contractuales aceptadas por las partes, habida cuenta que las cláusulas penales establecidas en los contratos administrativos, como ocurre en el Derecho Civil, se rigen por lo acordado entre las partes, sin que la posición privilegiada que ocupa la Administración en la contratación administrativa altere o desnaturalice las relaciones jurídicas surgidas de los pactos suscritos por los contratantes.»*

Bestalde, Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2016ko maiatzaren 18ko epaiak (476/2016, rec. 675/2013, ECLI:ES:TSJCV:2016:3642), Zuzenbideko Laugarren Oinarrian hau azpimarratzen du: *«Por tanto, en cuanto a la naturaleza jurídica del acto que analizamos, la primera conclusión que se obtiene es que aún cuando el propio Pliego denomine infracción y procedimiento sancionador, no estamos ante un procedimiento de esta naturaleza sino ante cláusulas penales contractuales, ...»*.

Zigorrak ezartzea, beraz, kontratista hertsatzeko edo hari presioa egiteko bitarteko gisa erabiltzen da administrazio-kontratazioan, eta kontratu-betebeharrak aurrez ezarritako epearen barruan erregulartasunez betetzen direla ziurtatzeko aplikatzen da, hala, obra aurreikusitako epean amai dadin. Beraz, behin eta berriz ulertu da zigor horiek ezarri ahal izango direla kontratista kontratua gauzatzen ari denean berandutzea duenean, baina ez obra amaitu ondoren, helburua baita kontratua behar bezala betetzeko eskatzea, kontratuaren balizko ez-betetzeak zuzentzea eta ez jokabideak zigortzea, zigor horiek ez baitute izaera zehatzaile hertsirik, eta, beraz, helburu hori galduko lukete.



Ikus daiteke, beraz, Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak azpimarratzen duela **kontratazio publikoaren eremuko zigorrak ez direla administrazio-zehapentzat hartzen, baizik eta legez aurreikusitako formula bat dela, kontratista administrazio-kontratuan hartutako betebeharrak unean-unean bete ditzan behartzeko**. Zigor horiek ezartzeko prozedurari dagokionez, Legean ez da zehazten ezartze-prozedura, eta, beraz, lizitazioa arautzen duten administrazio-klausula partikularren pleguak finkatu behar du prozedura laburtua, alegazioetarako epe laburrarekin. Horretarako, kontratuaren arduradunak proposatuta hasiko da, eta kontratazio-organoak hartuko du ezarpen-erabakia (SPKL, 194.2 art.).

IV.- ONDORIOAK

Lehen adierazi den bezala, kontratua 2022ko irailaren 23an formalizatu zen, eta, beraz, zuinketa egiaztatzeko akta formalizatzeko gehieneko epea 2022ko urriaren 23ra artekoa zen. Akta hori ez zen formalizatu 2022ko azaroaren 23ra arte, hau da, SPKLk aurreikusitako gehieneko epearekiko justifikatu gabeko hilabeteko atzerapenarekin.

Formalizazio data	23/09/2022	Egiaztapen akta egiteko gehieneko epea	23/10/2022
Obarak hasteko gehieneko epea	23/10/2022	Zuinketaren egiaztapen akta	23/11/2022
Obren hasiera	Hasi gabe	<i>Egiaztapen akta n atzerpena</i>	hilatete
		<i>Obaren hasieran atzerapena</i>	62 egun gaurko egunera arte

Zuinketa egiaztatzeko akta formalizatzean izandako atzerapena dela-eta, obrak 2022ko azaroaren 23an hasi behar ziren, eta gaur, 2023ko urtarrilaren 24an, oraindik hasi gabe daude. Beraz, dagoeneko **62 eguneko atzerapena du obren hasierak**.

Aurreko datuen arabera, eta kontuan hartuta obrak egiteko epea 6 hilabetekoa dela, 2023ko maiatzaren 23rako amaituta egon beharko lukete, baina lanen konplexutasuna eta espezifikotasuna kontuan hartuta, ezin izango da helburu hori lortu.

Kontratazio hau arautzen zuten pleguek ez dute exekuzio-epea murrizteagatik puntuazioa jaso, baina bai egin beharreko lanen antolaketa eta plangintza, eta horrek berekin dakar memoria teknikoan bete ez diren zenbait epe baloratzea.

Azpimarratu behar da, gainera, kontratu horren lizitazioa presaz egin dela, espedientea premia atzeraezin bati erantzuten dion kontratu bati baitagokio, eta haren esleipena bizkortu egin behar zen interes publikoko arrazoiengatik. Beraz, hasieratik argi geratu da epeek kontratu honetan duten garrantzia. Gainera, kontratuaren epea kontratuaren funtsezko ezaugarrietako bat da, eta ez da soilik azken epea aintzat hartu behar, baizik eta, obren kasuan bereziki, hitzartutako epea betetzea ezinezkoa dela pentsarazten duen edozein aldaketa, lan-programaren hasierari edo gauzatzeari dagokienez. Hala,



Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 193. artikuluan 1. apartatuak ezartzen du kontratistak ezarrita dagoen guztizko epearen barruan bete behar duela kontratua, baita haren epe partzialak bete ere, eta 3. apartatuak hau dio: «*Baldin eta kontratista azken epea betetzeko orduan berandutu bada berari egotz dakizkiokeen kausak direla eta, Administrazioak, kasuaren inguruabarrei erreparatuta, aukeran izango du, edo kontratua suntsiaraztea, edo zigorrak ezartzea, proportzio honetan: kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euro, eguneko, BEZik gabe*». Ondoren, 5. apartatuan berariaz ezartzen du administrazio kontratatzaileak ahalmen berberak izango dituela epe partzialak betetzeko berandutzeari dagokionez, «*guztirako epea ere ezingo dela bete uste izateko nahiko arrazoi ikusten bada*».

Kontratuaren edozein ez-betetze ezin da kontratua alde aurretik suntsiarazteko arrazoi izan, egia da hori, baizik kontratua suntsiarazteko, ez-betetze larria izan behar du, kualifikatua eta funtsezkoa, suntsiarazpena inguruabar horretatik erator daitekeen ondorio larriena baita. Auzitegi Gorenak 2001eko abenduaren 14ko epaian adierazi zuen kontratua ez betetzearen ondoriozko suntsiarazpena honako hau agerikoa duten kasuetara mugatu behar da: «*una voluntad rebelde al cumplimiento de sus obligaciones, sin bastar el simple retraso, al requerirse una pasividad dolosa, culposa o negligente imputable al contratista*».

Kontsulta-organoen doktrinak –ikus, adibide gisa, Estatu Kontseiluaren ekainaren 18ko 500/2015 Irizpena– Administrazioaren suntsiarazpen-ahalari dagokionez, hau adierazten du: «*la facultad de resolución constituye de suyo una consecuencia tan grave que obliga a estimarla aplicable tan sólo en los casos más graves de incumplimiento, pues resultaría notoriamente desproporcionado e injusto que cualquier incumplimiento, aún mínimo, supusiera tal resolución, ya que ésta constituye una opción que la Administración ha de ejercer siempre con obligada mesura*».

Ez-betetze bat kontratua suntsiarazteko modukotzat jotzeko, erabakigarria honek izan behar du: eragina izatea kontratuaren prestazio nagusian, edo prestazio osagarrietan, baina hain modu larrian, non arriskuan jartzen baitira kontratuaren exekuzioa edo pleguetan definitutako exekuzio-baldintza bereziak, eta horren emaitza izatea prestazioak guztiz edo funtsean bete gabe gelditzea.

Jurisprudentziak behin eta berriro ezarri du; adibidez, Auzitegi Gorenaren 1989ko martxoaren 20ko epaiak, edo Gaztela eta Leongo Auzitegi Nagusiaren 2018ko otsailaren 13ko epaiak: «*el contrato de obras es típicamente un contrato de resultado. De ahí que tanto la Ley como el Reglamento, al desarrollar la ejecución de este contrato, hagan hincapié en los preceptos mencionados para resaltar la obligación del contratista de cumplir tanto los plazos parciales fijados para la ejecución sucesiva, como el general o final para su total realización. Item más, para la constitución en mora del contratista no se requiere interpelación o intimación previa por parte de la Administración; hasta tal punto que una racional presunción de incumplimiento del*



plazo final, deducido de la conducta del contratista en el desarrollo de la obra permite a la Administración optar por la resolución del contrato.»

Kontratua suntsiarazteko orduan, kontuan hartu behar da SPKLren 110.c) artikulua behin betiko bermeek erantzun beharreko buruz dioena: «*Kontratuan jasotako prestazioak behar bezala ematea, horien barnean direla kontratistak eskaini eta kontratazio-organoak onartu dituen hobekuntzak; kontratistak bere betebeharrak betetzen berandutzeagatik Administrazioari eragindako gastuak, (...)».* Beraz, kontratazio-prozedurak behin betiko bermerik ez eskatzeko gaitzen ez badu behintzat, kontratua suntsiarazten denean, bermea konfiskatu egin behar da, eta, era berean, prozedura hasi beharko da kontratistari kontratatzeke debekuak ezartzeko.

Aurrekoaren arabera, kontratazio-organoak baloratu beharko luke ea kontratistak bere betebeharrak betetzeari ihes egiteko borondaterik izan duen ala ez, atzerapen hutsa ez baita nahikoa; izan ere, kontratistari egotz dakioken pasibotasun dolozkoa, erruzkoa edo arduragabea behar baita. Era berean, neurritz kanpoko dirudi, hasieran behintzat eta informazio gehiagorik gabe, kontratua suntsiaraztea. Beraz, administrazio-klausula partikularren agirian xedatutakoaren arabera, eguneko 0,60 euroko zigorra aplikatu behar da kontratuaren prezioaren 1.000 euroko, atzerapenagatik, BEZik gabe.

Gaurko egunean (2022ko urtarrilaren 24a) atzerapena 62 egunekoa denez, **aplikatu beharreko zigorra 31.002,83 eurokoa izango litzateke. Zenbateko hori eguneratzen jarraitu beharko da kontratua gauzatzen hasi**

arte, eta, nolahi ere, obra osoa exekutatu ondorengo atzerapen osoagatik.

Berandutzeagatik zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean (BEZik gabe), kontratazio-organoak ahalmena izango du, edo kontratua suntsiarazteko, edo kontratua, zigor berriak ezarrita, gauzatzen jarraitzea erabakitzeko.

zehapena	0,60 € por cada 1.000 €
kontratuaren prezioa	833.409,50
atzerapen egunak	62
zehapena guztira	31.002,83 €

V.- ENTZUNALDIAREN IZAPIDEA

Gai honi dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikulua honako hau ezartzen du:

82. artikulua. Entzunaldiaren izapidea.

1. Prozeduren instrukzioa amaitutakoan, eta ebazpen-proposamena idatzi aurretik, haien berri emango zaie interesdunei edo, hala badagokio, haien ordezkari, kontuan harturik abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitako mugapenak.

Aholkularitza juridikorako eskumena duen organoari txostena eskatu baino lehen emango zaie entzunaldia interesdunei, edo, autonomia-erkidegoak prozeduraren parte direnean, Estatu Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaitza baliokidearen irizpena eskatu baino lehen.

2. Egoki irizten dieten dokumentu eta justifikazioak alega ditzakete interesdunek,



gutxienez hamar egun eta gehienez hamabost egun iraungo duen epe batean.

3. Epea igaro aurretik interesdunek adierazten badute ez dutela alegaziorik egingo ez beste dokumentu edo justifikaziorik aurkeztuko, izapidea egintzat joko da.

4. Entzunaldiaren izapidea egin gabe utz daiteke prozeduran ez bada azaltzen eta ebazpenean ez bada kontuan hartu interesdunak azaldutako egitate, alegazio eta frogak besterik.

5. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 32.9 artikuluan aipatzen den ondare-erantzukizunari buruzko prozeduretan, beharrezkoa da beti entzunaldia ematea kontratistari, prozeduran egiten diren jarduketa guztien berri emanez, prozeduran pertsonatu dadin, bere eskubideei dagokiena azaldu dezan eta egoki deritzen frogabide guztiak proposa ditzan.

Kasu honetan, NERCO INFRAESTRUCTURAS SL enpresak. (B53926606) gutxienez hamar eta gehienez hamabost eguneko epean, egoki irizitako dokumentuak eta justifikazioak alegatu eta aurkeztu ahal izango ditu. Epea amaitu baino lehen interesdunek adierazten badute ez dutela alegaziorik egingo, ez eta dokumentu eta justifikazio berririk aurkeztuko ere, izapidea gauzatutzat joko da.

VI.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontuan hartuko dira SPKLren bigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuan kontratazio arloan toki-erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoa jasotzen dituzten xedapenak.

1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.

2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 845.379,28 eurokoa denez, aurrekontu horren (2.656.409 euro) baliabide arrunten % 10 baino txikiagoa da, eta, beraz, alkate-udalburua da organo eskuduna. Hala ere, alkate-udalburuak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.3 artikuluan



xedatutakoaren arabera, Alkatetzaren otsailaren 14ko 2022/281 Dekretuaren bidez erabaki zuen 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuak tokiko gobernu-batzarraren esku uztea. Horregatik guztiagatik, kontratazio honen organo eskuduna Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da.

Adierazi behar da kontratazio-organoari dagokiola, besteak beste, kontratua esleitzea, interpretatzea, bertan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, kontratua onura publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratua azkentzea eta ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190. eta 191. artikuluen arabera eta haren Erregelamendu Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioekin.

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, zeinak udal-idazkariaren oniritzia duen, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Espedientea izapidetzen hasia NERCO INFRAESTRUCTURAS SL (B53926606) enpresari zigorrak aplikatzeko; hain zuzen, Tolosako Usabalgo 3. faseari dagozkion kirol-instalazio eta urbanizazio osagarriko obrak egiteko kontratuaren lizitazioa arautzen duten administrazio-klausula partikularren agirian aurreikusitako zigorrak. Horretan oinarrituta, eta azalpen-zatian adierazitakoarekin bat etorritik, aplikatu beharreko zigorra 31.002,83 eurokoa da, aipatutako kontratuaren hasiera atzeratzeagatik. Zenbateko hori eguneratzen jarraitu beharko da kontratua gauzatzen hasi arte, eta, nolahi ere, obra osoa egin ondoren, dagokion atzerapen osoagatik.

BIGARRENA.- Aurrekoaren ondorioz, NERCO INFRAESTRUCTURAS SL enpresari (B53926606) helaraztea ebazpen hau, hala, dagokion jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera **10 egun balioduneko** epean egoki irizitako dokumentuak eta justifikazioak alegatu eta aurkez ditzan. Interesdunek epea amaitu baino lehen adierazten badute ez dutela alegaziorik egingo, ez eta dokumentu eta justifikazio berririk aurkeztuko, izapidea gauzatzat joko da.

HIRUGARRENA.- Dagokion ebazpena interesdunari, Hirigintzari, zuzendaritza fakultatiboaz arduratzen den enpresari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari jakinaraztea.



3. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2023/65 DEKRETUA: 2022/55 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2023/65 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:

55. zenbaki duena, 430.423,97 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

55. zenbaki duena, 430.423,97 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Tolosa Mendia

Begoña Garmendia Vázquez



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0002

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2023/114 DEKRETUA: 2022/56 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2023/114 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:

56. zenbaki duena, 331.438,30 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

56. zenbaki duena, 331.438,30 eurokoa.

ESKUB6eeb690-8aaa-46e5-9714-8610933d36e6



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0002

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2023/115 DEKRETUA: 2022/57 ETA 2022/58 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2023/115. Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hauek:

57. zenbaki duena, 1.085,76eurokoa.

58. zenbaki duena, 399 eurokoa.

Zerrenda hauetan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0002

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

57. zenbaki duena, 1.085,76eurokoa.

58. zenbaki duena, 399 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2023/150 DEKRETUA: 2022/59 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2022/150 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0001

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu lege eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:

59. zenbaki duena, 20.387,76 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0002

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- *Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

59. zenbaki duena, 20.387,76 eurokoa.

BIGARRENA.- *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

*Nire aurrean,
idazkaria*

Begoña Garmendía Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 12:05ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023IGBA0002-2023-01-31 Gobernu batzarra akta/2023-01-31 Gobernu